

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Ingeniaritza Biomedikoko eta LEINN graduako 60 ikaslek osasun-sektoreko enpresen benetako erronkak ebatzi dituzte.

2017/05/19

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Ingeniaritza Biomedikoa eta LEINN (Lidergo Ekintzaileko eta Berrikuntzako Gradua) ikasten ari diren Oñatiko, Bidasoako eta Bilboko 60 ikasle Garaiaiko Berrikuntza Gunean (Arrasaten) bildu ziren atzo, helburu bakar batekin: jardunaldian zehar, osasun-sektoreko enpresek mahai gainean jarri zituzten benetako lau erronka diziplina anitzeko taldeetan ebaztea.

Egun osoan zehar garatu zen “Multidisciplinary Lab” izeneko ekitaldiaren erronka nagusia ikasleek talde heterogeneoetan lan egitea izan zen, betiere ekintzailearen ikuspuntutik eta osasun-sektoreko enpresen benetako premiei erantzuteko helburuarekin.

Jarduera MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN gaur egungo Plan Estrategikoaren barnean kokatzen da. Izan ere, ikasleen arteko diziplinartekotasuna sustatzea da helburuetako bat, horrela, gero lan-merkatuan aurkituko dutenari erantzun hala izateko.

Jardunaldiaren aurkezpenean (9:00etan), parte-hartzaileei osasun-sektorearen ikuspegi orokorra eman zitzaizkien, sektorean irtenbide eta negozio berriak garatzeko joeretan eta aukeretan oinarrituz, eta, horren ostean, enpresek benetako kasuei emandako irtenbideak aurkeztu ziren. Gero, enpresek lau erronka aurkeztu zituzten: bi Ulma taldearenak, bat Grifols-ena eta laugarrena menpeko pertsonen etxean dituzten premiei buruzkoa. Ikasleek lau erronken inguruko proposamenak egin eta garatutako lanak aurkeztu behar izan zituzten horren ostean.

